

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu apirilaren 16tik 22ra bitarteko asterako

Astelehena, 2018.eko apirilak 16

Nafarroako Liburutegiak hitzaldi hauek antolatu ditu: “Ramana Maharshi: transparencia del ser”, astelehenean; “Poesía femenina actual de Navarra en castellano”, asteartean; eta “Recordando a María Luisa Elío”, ostegunean. Bestetik, Nafarroako Museoak “Los grupos de la Escuela Vasca” hitzaldia emango du, asteartean.



Roberto Bolaño egindako filma “La batalla futura”, Filmotekan ikus daiteke.

Zinemak film hauek hurbilduko dizkigu Nafarroako Filmotekara: “Zafarrancho en el circo”, asteazkenean; “Roberto Bolaño. La batalla futura”, ostegunean; eta “Veredicto final”, ostiralean.

Musikari dagokionez, Musikaren Hiriko Fernando Remacha auditorioak piano-errezitaldia hartuko du, ostegunean, Iruñeko Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionaleko ikasleen eskutik.

Prestakuntzak, aldiz, espazio hauek hartuko ditu: Nafarroako Liburutegia, astelehenean, “Ramana Maharshi: transparencia del ser” tailerraren eskutik, eta Huarte Zentroa, “Derechos de la propiedad intelectual” saioaren zein “KBK Kontrabandistak” eta “XYZ jeXpresa! ¡proYecta! ¡zigZaguea!” tailerren eskutik, asteartean eta ostiral eta larunbatean, hurrenez hurren.

Erakusketei dagokionez, “En abierto” inauguratuko da, Nafarroako Liburutegian, eta hauek ikusgai jarraituko dute: “Gamazadaren 125. urteurrena”, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, “Incurvar”, Oteiza Museoan; “Danok taldea. 1966-1967”, Nafarroako Museoan; eta “Ikusgai egiten duen gaua”, Huarte Zentroan.

Haurrentzako aisiak ere bere tokia izango du, “Ongi etorri ipuinetara: Kamishibai” ingelesezko saioaren bidez, asteazkenarekin, Nafarroako Liburutegian.

Bukatzeko, ondokoak ere antolatu dira: “Dos mujeres cuentan” antzezlan, astelehenean, Nafarroako Museoan; tailer-bisita bat, Aitziber

Urtasunen eskutik, asteazkenean, Oteiza Museoan; bisita berriak, igandean, Iruñeko katedraleko klaustroko lanetara; eta bisita gidatua, gaztelaniaz, "Danok taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara, igandean, Nafarroako Museoan.

[Esteka](#) honetan duzu kultur programazio osoa.